

Euskarazko izen arrunten proposamena

Alcidae familiarentzat

11 generotako 25 espezierentzat proposamenak



**EUSKAL
BATZORDE ORNITOLOGIKOA**
COMITÉ ORNITOLÓGICO
DE EUSKADI

2025eko urtarrilean

Asier Sarasua Aranberri

Euskal Batzorde Ornitologikoa

Izen arrunten proposamena Alcidae familiarentzat

11 genero eta 25 espezie

Alcidae familian 11 generotako 25 espezie ditugu, horietako bat dagoeneko desagertuta, gehienak euskarazko izen arruntik gabeak ez Euskaltermen eta ez euskarazko hiztegi nagusietan.

Europan inoiz ikusi diren hegazti-espezieen zerrendan badira beste kontinente batzuetatik iritsitako hainbat hegazti, besteak beste Alcidae familiako kideak.

Europako izendegia osatze aldera egindako lanaren harira, eta behin familia honetako kide batzuen izenak proposatzen hasita, erabaki dugu aprobeztatu daitekeela familia osoa izendatzeko, besteak beste, kide ezagun ugari dagoelako talde honetan eta familia txiki samarra delako (eta, hartara, izendatzeko erraza).

Izen arruntak proposatzeko orduan “*Animalien euskarazko izenak finkatzeko oinarrizko irizpideak*” dokumentuan zehazten diren jarraibideak hobetsi ditugu.

Alcidae familia

Ipar hemisferioko ur hotzetan bizi diren hegazti itsastarren taldea da Alcidae familia. Tamaina txiki edo ertaineko hegaztiak dira, gorputz sendo eta trinkoa dutenak. Haien ezaugarri bereizgarriena hegoak dira: laburrak eta sendoak, urpean igeri egiteko egokituak. Lumaje zuri-beltza dute gehienek eta moko sendoa, batzuetan oso koloretsua ugalketa garaian.

Familia honetako hegaztiak ipar hemisferioko itsaso hotzetan bakarrik aurkitzen dira, hau da, Ozeano Artikoan, Ozeano Atlantikoaren iparraldean eta Ozeano Pazifikoaren iparraldean. Ugaltzeko itsaslabar malkartsuetara joaten dira, non kolonia handietan biltzen diren. Neguan, ordea, itsaso zabalean igarotzen dute denbora gehiena, lehorretik urrun.

Elikadurari dagokionez, arrain txikiak eta krustazeo planktonikoak dira haien harrapakin nagusiak eta dieta asko alda daiteke espezie batetik bestera: batzuk arrainjale espezializatuak dira, beste batzuk krustazeo txikiak jaten dituzte, eta badira dieta mistoa dutenak ere. Elikagaiak urpean harrapatzen dituzte, sarritan 20-30 metroko sakoneran, baina batzuetan askoz sakonago ere bai.

Ur hotzetan bizitzera oso ondo egokituta daude eta urpean igeri egiteko gaitasun bikaina dute, hegoak erabiliz propulstatzeko eta isatsa norabidea aldatzeko. Espezie batzuk 100 metro baino gehiagoko sakoneretara murgil daitezke janari bila. Lehorrean baldarragoak dira, baina gai dira itsaslabar malkarretan gora eta behera ibiltzeko.

Gaur egun, Alcidae familiak 10 genero inguru ditu eta 25 espezie ezagun. Azken hamarkadetan bi espezie galdu dira betirako: pottorro handia (*Pinguinus impennis*) XIX. mendean eta potorrotxo japoniarra (*Synthliboramphus wumizusume*) XXI. gizaldi hasieran honetan.

Taxonomiari dagokionez, azken 20-30 urteetan analisi molekularrek erakutsi dute Alcidae familia Charadriiformes ordenaren barruan kokatzen dela eta kaioen senide hurbila dela. Familia barruko taxonomian ere aldaketa batzuk izan dira: genero batzuk berrantolatu dira eta espezie berriak ere deskribatu dira berriki. Gainera, ikerketa molekularrek erakutsi dute familiaren barruko harremanak uste zena baino konplexuagoak direla eta horrek espezie batzuen sailkapenean aldaketak eragin ditu.

Alcidae familiako kideen izen generikoen inguruan

Familia honetako kideen izen arruntei dagokionez, ondorengo ezaugarri orokorrak dituzte:

- **Familia txikia** da. Genero askotxo ditu (11), baina espezie gutxi (25). Genero horiek 2 subfamilia eta 6 tributan banatzen dira.
- Europako hizkuntzetan, oro har, **izen generikoak sailkapen taxonomiko horrekin bat** datoz, subfamilia eta tribuen arabera izen generiko zehatz bat erabiliz, salbuespenak salbuespen.
- Espezifikatzaileei dagokienez, familia honetako kideek ez dute lumaje eta kolore bereizgarriegirik (gehienak zuri-beltzak dira), baina, halarik ere, mokoaren edo burualdeko zenbait ezaugarritan oinarritutako **izen deskriptiboak nahiko ohikoak dira** talde batzuetan. Dena dela,, kasu askotan **tamaina** da espezieak bereizteko elementuetako bat (izen espezifikoetan ez ezik, baita izen generikoetan ere) eta **jatorri geografikoa ere oso baliabide erabilia** da familia honetako tribu batzuen kasuan.

Euskal ondare tradizionalako izenei dagokionez, hauxek dira talde honetako espezieentzat euskaraz erabili izan diren izen arruntak:

- **Pottorro** (pottorra, potorro, kotorra... aldaerak ere baditu): izenik erabili eta hedatuena euskal kostaldean, alde nabarmenarekin. Euskara jasoan ere horixe da izenik erabiliena.
- **Bibitxo**: Busturialdean erabilia.
- **Uxuxo**: Busturialdean erabilia. 'Ur-zozo' hitzaren eraldaketa dirudi eta, arrazoi nabarmenengatik, ez erabilgarriegia talde honen kasuan.
- **Lanperna-musu** (anpor-maixo, eperra-muxu... aldaerak ere baditu): erabilera orokor baina zehatzeko izena, beti-beti *Fratercula arctica* espeziarekin erabiltzen baita, ez talde honetako beste genero batzuekin.
- **Antxoatxori, bokartxori, papalaio, elantxobetar, joxebi** eta beste zenbait izen ere erabiltzen dira modu marjinalen euskal arrantzaleen artean, baina horiek ez zaizkigu egokiak iruditzen euskara estandarreko izen arrunt gisa erabiltzeko, arrazoi desberdinengatik.

Genero berrien izenak finkatzeko orduan erabiltzen diren irizpide nagusiei dagokienez, bestalde, hauxek dira oinarritzkoak:

- **Tradizioan** oinarritutako izenak aukeratu.
- **Sinonimoak** erabili talde bateko genero eta espezie berriak izendatzeko orduan, batez ere Euskal Herritik kanpoko espezieak direnean.
- **Jatorrizko eremuko tokiko hizkuntzan** daukan berezko izena ere erabili daiteke.
- Bestela, **izen zientifikoaren moldaketa edo paralelismoak** erabili, batez ere, beste hizkuntza batzuetan ere egin badute. Edo zuzenean beste hizkuntza batzuetako izenekin paralelismoak egin.
- **-txo txikigarria** erabili genero edo familia bateko espezieen artean txikitxoak izendatzeko.

Alcidae familiako generoentzat proposamenak

Aurreko puntuan aipatu ditugun datuak kontuan izanik, hauexek dira alzidoen familiako generoentzat proposatzen ditugun izenak.

Fraterculinae subfamilia

- **lanperna-musu:**
 - **Fraterculini** tribuko **Fratercula** generoko kide guztiak, itxuraz oso berezi eta bereizgarri direnak. Inguruko hizkuntzetan ere batasuna dago espezie hauek izendatzeko orduan.
- **bibitxo:**
 - **Aethiini** tribuko kide guztiak (**Ptychoramphus** eta **Aethia** generoak). Inguruko hizkuntzetan ere batasun handia dago genero hauek izendatzeko orduan.
 - Baita **Fraterculini** tribuko **Cerorhinca** generoko espezie bakarra ere (**Cerorhinca monocerata**), filogenetikoki lanperna-musuekin harremana izan arren itxuraz Aethiini tribuko espezieen antz handiagoa duelako; inguruko hizkuntzetan ere halaxe egin dute, oro har.

Alcinae subfamilia

- **pottorro:**
 - **Alcini** eta **Cepphini** tribuetako kide guztiak (**Alle**, **Alca**, **Uria**, **Pinguinus** eta **Cepphus** generoak).
- **pottorrotxo:**
 - **Synthliboramphini** eta **Brachyramphini** tribuetako kide guztiak (**Synthliboramphus** eta **Brachyramphus** generoak).

Alcidae familiako espezieentzat proposamenak

- *Fratercula cirrhata*: **lanperna-musu ilun** - frailecillo coletudo, macareux huppé, fraret crestat, Tufted Puffin, Gelbschopflund, pulcinella dai ciuffi.
- *Fratercula arctica*: **lanperna-musu atlantiko** - frailecillo atlántico, macareux moine, fraret atlàntic, Atlantic Puffin, Papageitaucher, pulcinella di mare.
- *Fratercula corniculata*: **lanperna-musu mokohori** - frailecillo corniculado, macareux cornu, fraret banyut, Horned Puffin, Hornlund, pulcinella cornuto.

...

- *Cerorhinca monocerata*: **bibitxo adardun** - alca unicórnea (ES), macareux rhinocéros (FR), fraret rinoceront (CA), Rhinoceros Auklet (EN), Nashornalk (DE), alchetta rinoceronte (IT).
- *Ptychoramphus aleuticus*: **Cassin bibitxo** - mérgulo sombrío, starique de Cassin, gavotí de Cassin, Cassin's Auklet, Aleutenalk, alchetta di Cassin.
- *Aethia pusilla*: **bibitxo txiki** - mérgulo mínimo, starique minuscule, gavotí menut, Least Auklet, Zwergalk, alchetta minuta.
- *Aethia pygmaea*: **bibitxo bibotedun** - mérgulo bigotudo, starique pygmée, gavotí de bigotis, Whiskered Auklet, Bartalk, alchetta baffuta.
- *Aethia cristatella*: **bibitxo mottodun** - mérgulo empenachado, starique cristatelle, gavotí emplomallat, Crested Auklet, Schopfalk, alchetta crestata.
- *Aethia psittacula*: **bibitxo papagai** - mérgulo lorito, starique perroquet, gavotí cotorra, Parakeet Auklet, Rotschnabelalk, alchetta psittacina.
- *Brachyramphus perdix*: **bibitxo mokoluze** - mérgulo jaspeado asiático, guillemot à long bec, gavotí jaspiat asiàtic, Long-billed Murrelet, Langschnabelalk, urietta beccolungo.
- *Brachyramphus brevirostris*: **bibitxo mokolabur** (mérgulo piquicorto, guillemot de Kittlitz, gavotí de bec curt, Kittlitz's Murrelet, Kurzschnabelalk, urietta di Kittlitz.
- *Brachyramphus marmoratus*: **bibitxo marmolaire** - mérgulo jaspeado americano, guillemot marbré, gavotí jaspiat americà, Marbled Murrelet, Marmelalk, urietta marmorizzata.

...

- *Cepphus carbo*: **pottorro betaurrekodun** - arao de anteojos, guillemot à lunettes, somorgollaire d'ulleres, Spectacled Guillemot, Brillenteiste, uria dagli occhiali.
- *Cepphus grylle*: **pottorro hegalzuri atlantiko** - arao aliblanco, guillemot à miroir, somorgollaire alablanc, Black Guillemot, Gryllteiste, uria nera.
- *Cepphus columba*: **pottorro hegalzuri aleutiar** - arao colombino, guillemot colombin, somorgollaire columbí, Pigeon Guillemot, Taubenteiste, uria colombina.
- *Alca torda*: **pottorro arrunt** - alca común, petit pingouin, gavot, Razorbill, Tordalk, gazza marina.
- *Pinguinus impennis*: **pottorro handi** - alca gigante, grand pingouin, alca gegant, Great Auk, Riesenalk, alca impenne.
- *Alle alle*: **pottorro txiki** - mérgulo atlántico, mergule nain, gavotí atlàntic, Little Auk, Krabbentaucher, gazza marina minore.

- *Uria lomvia*: **ipar-pottorro** - arao de Brünnich, guillemot de Brünnich, somorgollaire de Brünnich, Thick-billed Murre, Dickschnabellumme, uria di Brunnich.
- *Uria aalge*: **martin pottorro** - arao común, guillemot marmette, somorgollaire común, Common Murre, Trottellumme.

...

- *Synthliboramphus antiquus*: **pottorrotxo arrunt** - mérgulo antiguo, guillemot à cou blanc, gavotí antic, Ancient Murrelet, Silberalk, urietta canuta.
- *Synthliboramphus wumizusume*: **pottorrotxo japoniar** - mérgulo japonés, guillemot du japon, gavotí del Japó, Japanese Murrelet, Japanalk, urietta del giappone.
- *Synthliboramphus scrippsii*: **pottorrotxo kaliforniar** - mérgulo californiano aliclaro, guillemot de Scripps, gavotí de Scripps, Scripps's Murrelet, Kalifornienalk, urietta di Scripps.
- *Synthliboramphus hypoleucus*: **pottorrotxo guadalupear** - mérgulo de la Guadalupe, guillemot de Xantus, gavotí de Xantus, Guadalupe Murrelet, Guadalupealk, urietta di Xantus.
- *Synthliboramphus craveri*: **Craveri pottorrotxo** - mérgulo californiano alioscuro, guillemot de Craveri, gavotí de Craveri, Craveri's Murrelet, Niederkalifornienalk, urietta di Craveri.

Zuzentzaileen ekarpenak eta oharrak

Dokumentu honen lehenengo bertsioa Asier Sarasuak ondu zuen eta, ondoren, beste 8 txorizale euskaldunen artean banatu eta aztertu da: Aitor Galarza, Martin Rezola, Edorta Unamuno, Azaitz Unanue, Jon Zubiaur, Maite Laso, Miel Mari Elozegi eta Aitor Leiza.

Oro har proposamen guztiak aho batez onartu dira (izen generikoak zein espezifikoak). Hauxe izan da eztabaidagai izan dugun puntu bakarretakoa:

- **Uria aalge** espeziea da arazotxoren bat izan dezakeen bakarra. Izan ere, espezie honekin arazotxoak daukagu. 'Martin' izendatu izan da azken urteotan euskaraz, baina martinak euskal arrantzaleentzat Prozelaridae familiako kideak izan dira. Munduko alzido guztiak izendatzeko proposamen hau aukera ona izan liteke "martin arrunt" hori moldatu eta "martin pottorro" izendatzeko. Horrela eginda, 'martin' izendapen horri eutsiko genioke nolabait, azken urteotako tradizio arautua erabat ez hausteko, baina espezifikatzaile bilakatuko genuke, taldeko beste kide guztiak bezala "pottorro" izendatuz. Irtenbide egokia iruditzen zaigu, arazo historiko bati aurre egiteko modu garbi eta erosoak, baina iritzi gehiago jaso beharra ere azpimarratu dugu.

Asier Sarasua (Euskal Batzorde Ornitologikoko idazkaria), Aitor Galarza (Bizkaiko Foru Aldundia), Maite Laso (Aranzadi Zientzia Elkarte), Martin Rezola (IVAP Euskal Institutua), Edorta Unamuno (Urdaibai Bird Center), Azaitz Unanue (Txepetxa Hegaztien Zientza-Eraztunketarako Elkarte), Jon Zubiaur (Kulixka Irteera Ornitologikoak), Aitor Leiza (Itsas Enara Elkarte Ornitologikoa), Miel Mari Elozegi (Nafarroako Gobernuak Basozaina).

Euskal Batzorde Ornitologikoa